

ERRONKA SOZIALENTZAKO EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN ERANTZUNAK

*Garapen Jasangarrirako Helburuetatik eta Eskubide Sozialen Europako Zutabetik
egindako hurbilpena*

Egungo gizarteak gero eta konplexuagoak dira eta dimentsio askotako gizarte-aldaketak bizi dituzte: sozialak, ekonomikoak, kulturalak, etab. Egun bizi ditugun arazo eta gizarte-aldaketa batzuek irudika dezaketen etorkizunaren inguruko kezka dago. Arlo sozialean, erronka ugari daude eta batzuk, biztanleriaren zahartzea edo familia-egituren aldaketak esaterako, nabariak dira duela urte batzuetatik. Beste batzuk, gizarte-arrakala digitalak edo nahi ez den bakardadea adibidez, bat-batean eta modu orokortuan geratu dira agerian Covid-19aren pandemiaren ondorioz.

Erronka eta gizarte-desafio horiek dakarten kezka dela eta, jasangarritasuna eta garapena bermatu ahal izateko konpromisoak lortzeko ahaleginak egiten ari dira. Garapen Jasangarrirako Helburuak edo Eskubide Sozialen Europako Zutabeak dira proposamen eta konpromiso zehatzak dituzten ekimen paradigmaticoen adibide. Geurera ekarrita, Eusko Jaurlaritzak erronka horietako batzuei aurre egiteko hedatu dituen estrategiak nabarmendu behar dira, hala nola erronka demografikoari lotutako GJHak eta Agenda 2030.

Proiektu honen xedea **EHSSko erakundeek lana ulertzeko eta horiengana gizarte-erronken eta -desafioen ikuspegitik hurbiltzeko esparru alternatiboa eskaintzea da**. Izan ere kokatu behar da haien zeregina, bideratu/baldintzatzen duten errealitate eta gizarte-eraldaketekin lotuta. Testuinguru hori Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta Eskubide Sozialen Europako Zutabearekin lotuko da. Horrekin, EHSSko erakundeek erronka sozialen esparruan egiten duten lana ikusarazi nahi da, gizarte-eraldaketan egiten duten ekarpena erakutsi eta, gainera, EHSSren identitate partekatua eta gizarte-eragile esanguratsua den heinean duen posizionamendua indartu.

Esparru horretatik eta begirada esfera sozialean eta gizarte-politikan jarrita (gizarte-babesari, ongizate-estatuari eta abarri dagokionez), egun euskal gizartea zeharkatzen duten gizarte-erronka eta desfioei buruz hitz egin nahi dugu.

Orientazio-gidoia

1. bizitzen ari garen edo aurki biziko ditugula aurreikusten ditugun aldaketa eta gizarte-erronka nagusietako batzuk ulertzeko esanguratsuak izan daitezkeen hainbat dimentsio birpentsatu nahi ditugu:
 - A. Zure ustez, ikuspegi **demografikotik**, zein dira aldaketa edo arazo nagusiak?
 - Migrazio-mugimenduen ikuspegitik?
 - Familia-egituren ikuspegitik?
 - Egitura/piramide demografikoaren ikuspegitik: zahartzea, jaiotza-tasa...?
 - B. **Ugalketaren eta jasangarritasun sozialaren** ikuspegitik?
 - Arretaren eta zaintzen ikuspegitik?
 - Bakardadetik?
 - Bizi-kalitatetik?
 - Bizitza autonomotik?
 - C. Zure ustez, **egitura sozialaren** ikuspegitik, zein dira aldaketa edo arazo nagusiak?
 - Desberdintasun sozial zaharrak?
 - Desberdintasun sozial berriak?
 - Gizarte-bazterkeriaren modu berriak?
 - D. Enpleguaren ikuspegitik?
 - E. Etxebizitzaren eta emantzipazioaren ikuspegitik?
 - F. Gizonen eta emakumeen ikuspegitik?
 - G. Gizarte digitalaren eta digitalizazioaren ikuspegitik?
 - H. Dibertsitatearen eta elkarbizitzaren ikuspegitik?

1. Zure ikuspegitik, zer arazo/gizarte-aldaketa nagusi identifikatzen dituzu egun Euskadin gizarte-arloan?

2. Zer **jarduketa dira beharrezkoak** erronka horiei erantzuteko? Zer gizarte-eragile inplikatzeko ditu? Bakoitza nola?

3. **Pandemiak** zer eragin izan du? Guztientzat arazo berberak ekarri ditu? Batzuk ezkutatu egin ditu? Beste batzuk areagotu?

4. Zer zeregin uste duzu dutela **Hirugarren Sektore Sozialeko** erakundeek erronka horiei erantzuteko garaian...?
 - Beren nortasunetik, zereginetik eta balioetatik
 - Egiten duten jardueratik
 - Eraldaketa sozialerako gizarte-eragile gisa duten roletik